



2022 | URTEKO IRAKURKETA
ETA ONDORIOAK

Izenburua: Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak 2022

Egilea: Euskaingintzaren Kontseilua

Argitalpen-data: 2023ko urtarrilaren 12a

Ale kopurua: 100. Argitalpen digitala, www.kontseilua.eus atarian eskuragarri.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. HIZKUNTZA-POLITIKAZ PARE BAT OHAR	6
Araudia	7
Plangintza	9
Baliabideak	9
3. HEZKUNTZA	10
EAE: lege berria	11
Nafarroa: amesgaizto zaharrak	12
Ipar EH: debekuak eta bortizkeria	13
4. ADOSTASUNAK: BATUZ ALDATU	14
Adostasun politikorako talde eragilea	15
Dinamika berriak adostasuna oinarri	16
5. HERRI GOGOIA: PLAZAK BETETZEN	18
Kalean	19
Esku-hartzeen aurrean tinko	21
Urteurrenak	22
6. AURRERA BEGIRA	23



I. SARRERA

1997ko abenduaren 6an, Durangoko Arte eta Historia museoan, euskalgintzako hamarnaka eragile batu ziren Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren sortze-biltzarrean. 2022ko abenduaren 6an, bazkideekin, eragile sozial eta sindikalekin, alderdi politiko zein eragile instituzionalekin eta hamarnaka herritarrekin ospatu nahi izan dugu urteurrena. Atzera begira jarri ginen, eskuartean ditugun erronkei erreparatu, baina iparra etorkizunari so. Eta, horretarako, gainera, hurrengo urteetan Kontseiluaren itsasontzia gidatuko duen lemazaina, Idurre Eskisabel Larrañaga, aurkeztu genuen. Modu ezin hobean amaitu du Euskalgintzaren Kontseiluak 2022a.

Baina izan da, bai, urte osoa abenduaren 6aren aurretik, eta hori guztia aletu nahi du *Urteko irakurketa* delako txosten honek, azken zazpi urteetan bezalaxe. Horrela, ohikoa dugun hizkuntza-politikaren errepasoaz gain, aurten, hezkuntzaren esparruari eskaini nahi izan diogu tarte berezia, hainbat aukera eta mugimendu izan direlako urtean zehar. Horretaz gain, iaz abian jarritako *Batuz Aldatu* dinamikan ere sakondu nahi izan dugu. Ados-

tasunaren kontzeptua bolo-bolo dabilen honetan, garrantzitsua da adostasun horren baitan askotariko eragileak biltzea, baina garrantzitsua ere bada adostasun horrek eduki politiko sakona izatea. Bi helburuak bete ditugu *Batuz Aldatu* dinamikan, eta pixkanaka lehen uzta jaso dugu 2022an.

Pandemia atzean utzi, eta plazak betetzen hasiak gara, zentzu askotan. Hori ere agerian utzi nahi izan dugu aurtengo lanketan. Izan ere, argi geratu da ez dela gure herri-gogoa kikildu edo ahulduko duen ezer.

Gauza asko izan ditu 2022ak, baina horietan guztietan bada behin eta berriz errepikatzen ari den ideia: Bide interesgarria egin du euskararen normalizazio-prozesuak. Halere, benetako jauzia egin nahi badugu, ezinbestekoa izango da indarrean dauden hizkuntza-politikak berrikustea, eta beraz, berraztertu beharko dira araudia, plangintzak zein baliabideak. Horiei begira adostasunak eraikitzen ari da Kontseilua askotariko eragileekin. Balia daitezten, bada, adostasunok guztion artean jauzia emateko.



Idurre Eskisabel idazkari nagusi berria eta Paul Bilbao, Durangoko 25. urteurren ekitaldian.



2. HIZKUNTZA- POLITIKAZ PARE BAT OHAR

Egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten normalizazioaren aldeko politikak hiru ardatzetan eraikitzen dira: araudia, plangintza eta baliabideak. Azaletik bada ere, interesgarriztat jo dugu 2022an ardatz horiek zer eman duten aztertzea.

ARAUDIA

Corpus juridikoari dagokionez, 2022an, bai EAEn, bai eta Nafarroan ere, administrazioetan euskararen ezagutza edota erabilera arautzeko zein baloratzeko dekretuen berrikusketari ekin zaio.

Nafarroan, kezka handia sortu zuen Gobernuak **administrazioan euskararen ezagutza baloratzeko aurkeztutako dekretu-zirriborroak** jasotakoak. Izan ere, milaka lanpostutan euskararen ezagutza ez da kontuan hartuko; bai, ordea, ingelesarena, frantsesarena eta alemanarena. Gogor salatu zuen Kontseiluak Dekretuaren edukia, eta hiru atzerapauso mahai gaineratu zuen: batetik, 2017ra arte legeak ezarritako eremu mistoko lanpostu guztietan merezimendua zen euskararen ezagutza, berrian ez. Bestetik, eremu mistoan ezagutzaren balorazioa egingo zaien lanpostuei erreparatu gero, aurretik puntuazio altua zutenetik bi lanpos-

tu-mota gutxiago daude. Hirugarrenik, Dekretuak Auzitegiak ontzat jo zuen artikulua baten edukia aldatu eta murriztu zuen.

EAEn, Eusko Jaurlaritzak **Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua Arautzen duen Dekretuaren** prestakuntzari ekin zion. Aurkeztutako dekretu-zirriborroak badu elementu interesgarririk eta, batez ere, intenzio oneko joera batzuk jasotzen ditu. Halere, horien garapenean hanka-motz geratzen da. Gure ustez, modu zehatzago batean jaso behar dira betebeharrak, besteak beste, Dekretuaren beraren eraginkortasuna benetakoa izan dadin. Hona hemen elementu interesgarriak: eragin esparrua administrazio osora hedatzea; hautaketa prozesuak euskaraz egitea; hizkuntza-eskakizuna azterketan bertan egiaztatzea; herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko intenzioa; gaitasun asimetrikoak; 45 urtetik gorakoentzat salbuespena kentzea; eskatutako hizkuntza-eskakizuna baino goragoko maila baloratzea... Halere, baditu hobetu beharreko zenbait elementu: administrazioa euskalduntzeko epea, gakoa; derrigortasun-daten eta derrigortasun-indizeen eskema gaintu beharra; administrazioa euskalduntzeko neurri eta baliabideen falta; administrazio-atalen desagerpena; euska-



Kontseiluak eta Behatokiak egindako Nafarroako dekretu-zirriborroaren balorazio-agerraldia, Iruñean.



Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren harira eragileek egindako elkarretaratzea, Madril.

razko zirkuituak berariaz jasotzea... Esan behar dugu Kontseiluak indar handia jarri nahi izan duela epeen kontuan. Izan ere, orain baldintza errealak daude administrazioaren euskalduntze-prozesuari epemuga jartzeko, eta halakorik ez da jaso Dekretu-zirriborroan.

Bietan ala bietan, Euskalgintzaren Kontseiluak ekarpen zehatzak egin ditu, zertarako eta herritar euskaldunen eskubideen bermea ahalbidetzeko. Halere, oraindik ez dugu jaso gure ekarpenen inguruko erantzun ofizialik gobernu batetik ere.

Bestalde, **Eusko Legebiltzarrak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua** arautuko duen legearen berrikusketari ekin dio. Aurreko legea duela hemeretzi urte onartu zen. Horrela, orduko legeari erreparatuz gero, proposamen berriak ez du berrikuntzarik planteatzen, eta hainbat elementutan 2003ko jatorrizko legeak biltzen zuenarekin alderatuz atzerapausoak egiten ditu. Orain da unea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen bermean jauzia emateko. Halere, horretarako, beharrezkoa da lege ezaugarriak izango dituen araudia, bai eta hizkuntza-eskubideen esparruan ere. Bestela, berriz ere, enpresen borondatearen arabera bermatuko dira

kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen hizkuntza-eskubideak.

Gauzak horrela, nahitaezkoa da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua arautuko duen legeak zenbait betebeharrak zehatzago jasotzea, baldin eta kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen eskubideak bermatzeko bokazioa izango badu.

Bestalde, aipatu beharreko modukoa da apirilean Madrilen **Espainiako Kongresuak** onartutako **Ikus-entzunezkoen Lege Orokorra**. Tamalez, plataformen katalogo-kuotetan, TVEko emankizunetan eta finantzazio aurreratuan hizkuntza gutxienentzako erakundeek egindako presio politikoa eta soziala erabakigarria izan bada ere, txertatutako aldaketak erabat eskasak eta testimonialak izan ziren, osotasunaren % 0,35 eta % 2,55 artean kokatzen baitira. Ondorioz eta tamalez, lege berriak ez du aldaketa esanguratsurik ekarriko berezko hizkuntza gutxituen presentziari dagokionez.

Azkenik, urteurren-urtea ere izan dugu, izan ere, EAEko Euskararen Legeak berrogei urte bete zituen azaroan. Zalantzarik ez dago lege horrek hainbat aurrerapauso ahalbidetu dizkiola euskararen garapenari, bai eta

hizkuntza-eskubideen bermeari ere. Halere, kontuan hartu behar dugu duela lau hamar-kadatik asko aldatu dela gizartea, bai eta elebidun kopurua ere, eta orain izan daitekeela unerik egokiena legea birpentsatzeko.

Nafarroan urteurren borobila ez zuen izan Euskararen Legeak, baina urteurrena baliatu nahi izan zuen Kontseiluak ofizialtasunaren aldarria erdigunean kokatzeko abian jarritako dinamika aurkezteko.

PLANGINTZA

Nafarroan, **Euskararen Bigarren Plan Estrategikoa** garatzeko prozesua amaitu bazen ere, bai eta Euskararen Nafar Kontseiluaren aldeko irispenera jaso ere, Nafarroako Gobernuak berak blokeatu du indarrean jartzea. Horrekin batera, departamentuek jorratu beharreko hizkuntza-planak ere erabat izoztuta dituzte.

Eusko Jaurlaritzak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (**ESEP**) berritzeari ekin dio, horretarako Euskararen Aholku Batzordean sortutako azpibatzeren bidez. 2022 urteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak **Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024** aurkeztu zuen, hain zuzen ere, Gobernu Programan euskararekiko

hartutako konpromisoak, eta legealdi honetan abian jartzekoak edota gauzatzekoak.

BALIABIDEAK

Urtearen amaieran onartu dituzte Nafarroako Parlamentuak zein Eusko Legebiltzarrak 2023 urteko aurrekontuak. **Nafarroari** dagokionez, zenbait igoera izan dira, esaterako, helduen euskalduntzearen partidan, udalek euskararen erabilera sustatzeko jardueretan edota euskarazko hedabideen berrikuntza- eta digitalizazio-programetan laguntzeko. **EAE**n gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea da Eusko Jaurlaritzak datorren urterako jarri duen helburu nagusietako bat, eta hori lortzeko beste urrats bat egingo du euskara ikasteko ikasketen doakotasunean. Diru laguntzak handituko ditu 16 eta 30 urte arteko ikasleek B2 mailako azterketak ez ezik, C1 mailakoak ere doan egin ditzaten datorren ikasturtean. Horrez gain, euskara ikastea herritarrentzat eskuragarriagoa izateko plataforma teknologiko bat ere garatuko dute, *Ingura* deiturikoa. Euskal hiztunak aktibatzeke proiektu bat ere ageri da berrikuntzen artean: merkataritza alorrean euskararen erabilera sustatzeko marka bateratu bat jarriko du martxan Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriarekin batera. Barra-Barra jarri diote izena, eta 128.000 euro bideratu dira horretarako.



Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko Nafarroan abiatutako kanpainaren aurkezpena, Iruñean.



3. HEZKUNTZA

Askotan esan dugu hezkuntza-sistema dela egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten berreskurapen-prozesuan zutabe nagusietako bat, besteak beste, ezagutzaren unibertsalizazioari begira emari handiko iturria izan daitekeelako erabaki egokiak hartuz gero. Horrexegatik, hain zuzen, esparru horri garrantzi handia ematen diote, bai gizarte-eragileek, bai eta botere publikoek ere. Halere, aho biko aiztoa dela esan behar dugu, hezkuntza-sisteman eskuhartze politikak kontrako norantzan ere joan daitezkeelako, hain zuzen ere, hizkuntza gutxituko hitzunen emaria gutxiagotzeko.

Gauzak horrela, euskarari dagokionez, hezkuntza-sistemetan izandako gorabeherak garrantzi handia izan dute 2022an zehar.

EAE: LEGE BERRIA

2022ko apirilean eman zion argi berdea Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak hezkuntza akordioari, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza lege berria idazteko oinarri gisa hartuko denari.

Hizkuntzaren atalean artikulua berria txertatu zuten zeinaren arabera euskara ardatz izango den esparru eleaniztun orokortu baten aldeko apustua egiten den, eta gainera, bi hizkuntza ofizialen eta atzerriko hizkuntza baten ezagutza bermatuko duen eredu inklusibo orokortua defendatzen zen. Eredu inklusibo orokortua jaso izana urrats berria izan zen; halere, eredu eleaniztunaz baino, esparru eleaniztunaz aritzen da Akordioa, eta bi horien arteko aldeak zein den azaltzeko eskatu zitzaizkien. Bestalde, artikulua horrekin talka egiten duen ekarpenik ere txertatu zen. Esaterako, Akordioan jaso zen hiru hizkuntzek ikaskuntzak bideratuko dituztela, eraginkortasuna areagotzeko. Horrela, hiru hizkuntzek ikaskuntzak bideratu behar izatea kezka-

ria da. Horrexegatik, uste genuen argitu eta zehaztu beharrekoa dela zein den etorkizuneko eredu inklusiboaren oinarria. Kezkagarria litzateke garai bateko marko hirueledunari atzeko atea irekitzea, egun belaunaldi berriak euskalduntzeko erronka pil-pilean dagoenean.

Bestalde, 2022ko irailean publiko egin zuen Eusko Jaurlaritzak, aipatu Akordioa oinarri, jorratutako hezkuntza-lege zirriborroa. Orduan ere hainbat kezka agertu zituen Kontseiluak. Izan ere, Akordioak jasotako elementu interesgarri batzuk ez ziren Lege-zirriborroan islatu. Esaterako, eredu inklusibo orokortua ez zen modu esplizituan jaso legean. Aitzitik, une oro esparru eleaniztuna jasotzen du, eta modu horretan lausoegia geratzen da hizkuntzaren afera. Horrekin batera, badira Akordioak jaso eta Legeak ere bere egin beharko litzuzkeen bestelako elementuak, esaterako, euskara lehenetsi egingo dela hezkuntza-sistemaren baitan, hezkuntza jarduerak zein harreman profesionalean, edota euskara erreferentzia-hizkuntza gisa indartzea, hizkuntza-gaitasunaz harago euskal kulturaz jabetu beharra... Horiek denak ez ditu bere egin aurkeztutako lege-zirriborroak.

Ondorioz, euskal hezkuntza-sistemak ez du zehazten zein hizkuntza-ereduri jarraituko



2021eko abenduan hezkuntza-akordio zirriborroari egindako proposamenen aurkezpenean, Eusko Legebiltzarrean.

dion. Izan ere, lege-zirriborroak behin eta berriro azaltzen du euskara ardatz izango duen sistema eleaniztuna bultzatzen dela, baina ez da zehaztapenik egiten sistema horren hizkuntza-eredua zein den. Bada zer hobetu, beraz, baldin eta hezkuntza-sistemak belaualdi berri euskaldunak ekarriko badizkio hizkuntzaren berreskurapen-prozesuari.

Azkenik, ez guke EAEko egoerari buruzko atala amaitu nahi Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza eskasa mahai gaineratu gabe: oinarritzko LHn eskaintzeko lekuen %89 A ereduak dira.

NAFARROA: AMESGAIZTO ZAHARRAK

Nafarroari dagokionez, azpimarratu beharreko bi elementu izan dira 2022an. Batetik, Nafarroako Eskola Kontseiluak **Hezkuntza Itun** berria sinatu zuen, hurrengo urteetarako Nafarroako hezkuntza-sistemak izan beharreko ezaugarri eta noranzkoaren oinarriak proposatzeko. Prozesu oso azkarra izan zen, eta Itunean ez ziren ezarri Nafarroako berezko hizkuntzaren irakaskuntza lurralde osoan bermatzeko oinarriak eta neurriak.

Izan ere, Itunean ekitatea, kalitatea edo diskriminazio mota guztien ezabatzea oinarri izan behar duen hezkuntza-sistemaren alde egiten dela aipatzen den arren, Nafarroako ikasleen artean euskaraz komunikatzeko gaitasuna bultzatzeaz ari denean, zonifikazioaren arabera egingo dela aipatzen da. Ondorioz, legeak ezarritako Nafarroako eremu misto edo ez euskaldunean euskaraz ikasi ahal izatea ez da behar bezala bermatuko, ez eta sustatuko ere, euskarazko hezkuntza-eskaintza legeak ezartzen duen arabera izanik.

Eremu askotan euskararen ezagutzarekiko inolako neurririk bultzatuko ez den bitartean, eskola curriculumean atzerriko hizkuntzei euskarari baino protagonismo eta bultzada handiagoa eman nahi izatea kritikatu zuen Kontseiluak. Izan ere, haur hezkuntzan zein derrigorrezko bigarren hezkuntzan ere, atzerriko hizkuntzetan oinarritu eta euskara baztertzen duten ikastetxeak bultzatu nahi dira.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak **PAI** delako **programa** hezkuntza-eredu bihurtzeko erakutsitako determinazioa izugarria izan da. Gogoan izan dezagun, beste behin, PAI programa euskaldunon aurkako politika bortitzak garatzen zituen Gobernuak hezkuntzan euskararen presentzia desagerrarazteko abian jarritako neurria izan zela, garai artako lehendakariak berak halaxe adierazita telebista-kate batean.

Horrela, Nafarroako Parlamentuak apirilaren 28ko saiorako eztabaidagai zuen irakasle funtzionarioen hautaketari eta lanpostuen betetzeari begirako Foru lege proposamenaren eztabaida instrumentalizatu zuen PAI delakoa eredu linguistiko bihurtzeko. Are gehiago, 2022ko abenduaren 21ean Gobernuak publiko egin zuen Nafarroako Foru Komunitatean dauden Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko



Euskarazko matrikulazioaren aldeko agerraldia, bazkide eta sindikatuekin, Iruñean.

programen oinarritzko alderdiak arautzen dituen Foru Dekretuaren zirriborroa.

Amaitzeko, aipatu behar da Iruñeko Udalak hamazazpi haur eskoletatik bakarrean besterik ez duela eskainiko euskarazko murgiltzea.

IPAR EH: DEBEKUAK ETA BORTIZKERIA

Bi gaik izan dute garrantzia 2022an. Batetik, **Brebeta eta Baxoa euskaraz** egiteko debekua eta aldarria. Bestetik, **eskola publikoetan euskarazko gelen irekiera**.

Lehenari dagokionez, urte hasieran ekin zitzaizaien protestei, eta udaberriaren azterketak euskaraz egitea aldarrikatu zuen Seaskak EEPren egoitzan. Horrela, Bordeleko Errektorearekin bilkura antolatzea lortu zuen, okupazioaren bidez. Halere, errektoreak bizkarra eman zien Seaskaren eskaerei. Horren aurrean, Seaskak auzitara jo zuen Hezkuntza Ministerioaren aurka, baina azterketak euskaraz egiteko helegitea gibelera bota zuen Paueko auzitegiak.

Irudi lazgarriak eta gogorrak ikusi genituen ekainean, Frantziako Akademian hainbat gurasok, irakaslek eta ikaslek egindako okupazioaren baitan. Azterketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu nahi zuten; kolpeka eta negarra eragiteko gasa erabilia, bortizki oldartu zitzaizaien Frantziako Polizia.

Brebetaren aferari nolabaiteko irtenbidea eman nahi izan zitzaion, Euskal Hirigune Elkargoaren laguntzarekin, eta euskaraz erantzundako zientzietako azterketen zuzenketa antolatu zuten Baionako Arteen Hirian, zuzenketa ofizialaren baldintza beretan. Hartara, amaieran, Brebetako zientzietako azterketa berarentzat bi nota izan zituzten Seaskako kolegioetako ikasleek aurten. Lehena, ofiziala, Frantziako Hezkuntza Ministerioiko zuzentzaile erdaldunek emandakoa; bigarrena, sinbolikoa, Euskal Hirigune Elkargoaren babespean zuzentzaile euskaldunek emandakoa.

Azaroan, Bordelen berriz ere aldarrikatu zuten Seaskako ikasleek, irakasleek eta gurasoek azterketak euskaraz egiteko eskubidea.

Eskola publikoan murgiltze-sistema ardatz duten ikasgelen irekierari dagokionez, Irisarriko eskola publikoa okupatu zuten dozena bat gurasok, euskarazko murgiltzea exijitzeko. Larrainen ere zenbait gurasok eskola okupatu zuten.

Horrek ekarri zuen Frantziako Hezkuntza Ministerioaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko bilera, zeinaren arabera erabaki zen EEPk kudeatuko dituela euskara hutsezko gelen irekitzeen aferak. Halaber, berri onak ere izan ziren, ikasgela berriak zabaldu zirelako 2022-2023 ikasturtean.

Horrekin batera, azpimarratzeko modukoa da euskarazko 5.5 irakasle lanpostu gehiago lortu zirela. Egun dauden beharrak asetzeko ez da nahikoa, baina egoera hobetzeko, aldiz, bai.



Brebeta eta Baxoaren aferaren oihartzuna, Berriako azalean.



4. ADOSTASUNAK: BATUZ ALDATU



Batuz Aldatu dinamikako talde eragilearen aurkezpena, Donostian.

Azken boladan behin eta berriro ari gara entzuten zein irakurtzen nahitaezkoa dela euskararen inguruan adostasun berriak eraikitzea. Kontseiluak bat egiten du behar horrekin, baina oso argi du adostasun horrek eduki politiko sendoa izan behar duela.

Hogeita bost urte joan dira *Bai Euskarari XXI. mendeko akordioa* delako proposamena aurkeztu zela. Orduan, hainbat eragilek hiru konpromiso hartu zituzten euskararen etorkizuna Euskal Herrian datorren mendera arte segurtatzeko.

2021ean, aldiz, beste mota bateko adostasuna aurkeztu zuen Kontseiluak Kursaal jau-regian: *Batuz Aldatu hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun soziala*. Eta adostasun berri honek badu alderik aurrekoarekin, izan ere, eragileek konpromisoak hartzeaz gain, hizkuntza-politika berrien helburua eta horra iristeko norabidetzeak adostu zituzten. Hau da, gai izan ginen askotariko ehun eragile baino gehiagorekin eduki politiko sakona duen dokumentua adosteko.

Aukera paregabe hori baliatu izan du Kontseiluak adostasunen esparruan sakontzen jarraitzeko. Horrela, 2022an *Batuz Aldatu* dokumentuaren edukia oinarri, eragileek eremu, hizkuntza-politiketan dauden

lehentasunak definitu dituzte. Bestalde, lortu dugu beste esparru batzuetako eragileek gure dinamikara etortzea, esaterako, Ekonomisten Euskal Elkargoa, GAURGEROA (Euskal Herriko Jubilatu eta Pentsionisten Elkarte), Gazte Euskaltzaleon Sarea, Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua, HiTZ (Euskal Teknologiako Zentroa), Kukulaisi, Lanartea (Euskararen Langile Profesionalek Elkarte), Pantailak Euskaraz, Sukar Horia, UZEI, Xake Espazioa, XUTI (Ipar Euskal Herriko gazteen erakundea) eta GEHITU Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual eta transexualen elkarte. Hori guztia azaroan Miramonen antolatutako Sinatzaileen Lehen Biltzarrean aurkeztu genuen.

ADOSTASUN POLITIKORAKO TALDE ERAGILEA

Adostasun sozialak eraikitzeari ekin genion arren, argi dago hizkuntzaren normalizazioa prozesu soziopolitiko delako, eta beraz, berandu baino lehen, adostasun politikoak ere eraiki beharko direla.

Hari horri tiraka, adostasun politikoaren norabideak zehazteko talde eragilea eratu ge-

nuen. Bertan, Euskal Herri osoko eragileak eta sektore desberdinetakoak egotea lehenetsi genuen, adostasun sozialetik politikorako jauzia egiteko ikuspegi desberdinak beharrezkoak baitira. Honako erakunde hauek osatzen dute talde eragilea: AEK, Agirre Lehendakaria Center, Athletic Fundazioa, Bizipoza Bilgunea, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, Euskal Kontsumitzaileen Alkartea, Euskaltzaileen Topagunea, Eusko Ikaskuntza, Gazte Euskaltzaileen Sarea, Gipuzkoako Eri-zainen Elkargoa, Mondragon Korporazioa, Nafar Ateneoa eta Zabalik elkartea. Horiek guztiak, Kontseiluarekin batera, adostasun politikoaerako jauzia nola egin zehaztuko dute hurrengo hilabeteotan.

DINAMIKA BERRIAK ADOSTASUNA OINARRI

Esan behar dugu, *Batuz Aldaturen* helburua ez dela soil-soilik eduki batzuen bueltan adostasuna lortzea. Aitzitik, bestelako eragileekin dinamika berriak sortu nahi ditugu hizkuntza-politikan eragiteko.

Zalantzarik ez dugu hori guztia lan egiteko modu berria dela. Hau da, euskalgintzaz haragoko eragileekin lanean hasteak aldaketak ekarriko dituela gure jardunean, baina sinistuta gaude aukera berriak zabalduko dituela eragiteari dagokionez.

2022an zenbait dinamika abiatu dugu Batuz Aldatu ekimenaren baitan. Lehen **EAEko hezkuntza-legeari** lotzen zaio. Horrela, hezkuntzari lotutako eragileekin lortu genuen edukizko adostasun bat, EAEko hezkuntza-legeak euskarari dagokionez jaso beharreko proposamen integrala prestatu eta adostu genuen. Kontuan hartuta hizkuntzarena izango dela hezkuntza-legeak askatzeko izango duen korapilo nagusietako bat, Kontseiluak *Batuz Aldatu* dinamikaren bidez lortu zuen beste gai batzuetan arras desados dauden eragileak gai honetan batera agertzea. Hartara, zalantzarik ez dugu alderdiek aukera ezin hobea dutela urrats eragingarria egiteko, kontuan hartuta zer nolako babesaren duen gure proposamenak.

Administrazioaren esparruan ere, adostasun ikaragarria lortu dugu gehiengo sindikalarekin batera. Horrela, gai izan gara **EAEko administrazioetan euskararen**



Hezkuntzako eragile eta sindikatuarekin egindako agerraldia, Gasteizen.



ELA, LAB eta Kontseiluko idazkari nagusiak administrazioa euskalduntzeko ekarpenen aurkezpenean, Bilbon.

erabilera normalizatzeko dekretuaren inguruko ekarpen bateratua adosteko. Eragile bakoitzak zeinek bere ekarpenak pres-tatu eta aurkeztu arren, gai izan gara guztion arteko adostasun bat eraikitzeko, eta ados-tasun horretatik atera den proposamena elkarrekin aurkezteko.

Eremu sozioekonomikoari lotzen ba-gatzazkio, urrats berriak egin ditugu *Batus*

Aldatu dinamikaren baitan. 2020an, lan mundua eus-kalduntzeko eta langileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko kanpaina abian jarri genuen, 50 langiletik gorako enpresetan euska-ra-planak bultzatzeko gu-txieneko neurriak propo-satuz: 50 langiletik gorako enpresa guztietan euska-ra-planak negoziatuko dire-la jasotzen duen akordio in-terprofesionala hitzartzea. Urte eta erdi beranduago CONFEBASkek ezezkoa eman zion proposamena-ri. Halere, *Batus Aldatu* di-namikaren baitan eragiten jarraitzea erabaki genuen. Horrela, urrian Hego Eus-

kal Herriko 150 enpresatako delegatuak bildu genituen *Euskaraz lan egitea, eskubi-de kontua* lelopean lan mundua euskaldun-tzeko dinamika aurkezteko. Sindikatueta-ko ordezkariak konpromisoak hartu zituzten eragiteari begira, enpresaz enpresa Euska-raldiarekin bat egin eta Arigune gisa parte hartu dezaten bultzatzeko, bai eta lantokiak euskalduntzeko konpromiso zehatzak har ditzaten ere.



Eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko dinamikaren aurkezpena, 150 enpresatako delegatuekin, Bilbon.



5. HERRI GOGOIA: PLAZAK BETETZEN

KALEAN

Bi urte luzeko pandemiaren ostean, berriz ere bete ditugu kaleak euskararen alde. 2022ak inolako zalantzarik gabe, erakutsi du herri-gogo eta herri bizia dagoela euskararen alde, eta badagoela euskaraz bizitzeko nahi erraldoia.

HITZEKIN lelopean ibili zen **KORRIKA**ren 22. edizioa Euskal Herri luze zabalean udaberrian. Inoizko irudi epikoenak utzi zituen euskararen aldeko lasterketak: hasierako euri-zaparradak, edota Nafarroan elurrak geldiarazitako furgoneta hainbat lagunek bul-tzatzen... amaieran, milaka herritarrek eguzkipean azken kilometroak egiteko. AEK-k esan bezala, **KORRIKA**ren helburuetako bat guztiz lortu da: euskararen aldeko kontzientzia, herri-gogoa, hauspotzea.

Gainera, helduen sektorearen beharrak aldarrikatzeko ere baliatu zuten aurtengo **KORRIKA**, bestea beste, *Donibane Garaziko adierazpenaren* bidez. Bertan, elkarlanerako deia egin zieten instituzioei eta eragileei doakotasuna benetakoa izan dadin.

Gazte Euskaltzaleen Sareak ere euskararen kate-begia bada-goela erakutsi zuen maiatzean **Euskara Aurrera** manifestazioaren bidez. Milaka herrita-

rrek bete zituzten Donostiako kaleak deialdiarekin bat eginez. Orduan ere, euskararen beharrak non dauden argi zehaztu zuten: belaunaldi berriak osoki euskalduntzea, euskaraz eroso bizi ahal izateko espazioa eta eremuak zabaltzea, pantailetan euskararen presentzia areagotzea, euskara harrera hizkuntza bihurtzea, doakotasuna behingoz bermatzea eta euskara kohesio sozialerako hizkuntza bilakatzea.

Eta, bai, Kontseilua ere kalera atera behar izanda, bidegabakeriak salatzen. Aurten, Iruñeko kaleetan milaka pertsona bildu genituen Gobernuari **Herritarrek gutxietsi ez** ditzala eskatzeko. Nafarroako Gobernua prestatzen



Gazte Euskaltzaleen Sareak deituta Euskara Aurrera manifestazioa, Donostian.



Kontseilua, Korrikaren lekukoa eramaten azkenaurreko kilometroan, Donostian.



Nafarroako merezimenduen dekretuaren aurrean desadostasuna adierazteko manifestazioa, Iruñean.

ari den merezimenduen dekretuaren eduki baztertzaileei desadostasuna adierazteko eta eskubide berdintasuna aldarrikatzeko bete genituen kaleak. Orduan ere, euskaingintzaz haragoko hainbat eragileren babesa izan zuen deialdiak, finean, Gobernuaren jarduna kohe-sio sozialaren eta berdintasunaren aurka doalako.

Eta, ezin ahaztu urtearen hondarrean hirugarrenez egin dugula euskararen aldeko ariketa masiboa **EUSKARALDIA**ren bidez. Oraingoan ere, mota guztietako entitateek (elkarteak, enpresa handiak, taldeak, dendak, federazioak...) parte hartu zuten ariguneen bidez. Horrekin batera, milaka herritarrek *Ahobizi* edo *Belarriprest* rola hartu zuten, haien hizkuntza-ohituretan eragiteko. Ekimenaren amaieran, antolatzaileak pozik ziren ekimena gizartean normaldu delako eta ariketa sendotzen duelako. Aurreko bi edizioetan herritar eta entitateen hizkuntza-praktikatan eragiteko proposamen berriak ekarri zituen ekimen berritzaile honek eta hirugarren edizio honetan Euskaraldia, ariketa ezaguna izateaz gain, gizartean txerta-



Hezkuntza, kultura eta euskararen munduko 211 adituk sinatutako adierazpenaren aurkezpena, Bilbon.

tua eta normalizatua dagoela adierazi zuten. Halere, berriz ere gogoratu zuten Euskaraldia bakarrik ez dela nahikoa. Arau sozialak aldatzeko lanean jarraitu behar da eta inertiak apurtzeko eremu ezberdinetan proposamen berriak egotea garrantzitsua da.

Hezkuntzari dagokionez, hasi gara norbakoak astintzen. Kontseiluak eta kulturgingintzako eragileek sustatuta, hezkuntzaren, kulturaren eta euskararen munduko 211 adituk, sortzailek eta profesionalak sinatutako **Eus-kara eta euskal kultura, etorkizunaren**

ardatz adierazpena aurkeztu zen Bilbon Euskararen Nazioarteko Egunean. Hiru eskaera zehatz jasotzen ditu adierazpenak EAEko hezkuntza legeari begira, eta arian-arian, adierazpen horren bueltan herritar gehiago bildu nahi ditugu. Hartara, eskaera horiek masibo bihurtzea da hurrengo helburua, herritarren presioa ere agerian gera dadin. Asko dugu jokoan eta herritarrak aktibatu behar dira lege berriak euskarazko eredu orokortua eta euskal curriculum jaso ditzan.

Horiek nagusiak izan dira, baina izan dira, bai, nazio mailako ekimen gehiago: Durangoko azoka, Bertsolaritza Txapelketa Nagusia, ikastoletako jaiak zein euskarazko hezkuntza publikoaren aldekoa eta abar luzea. Edota, nola ez, Nafarroako hegoaldetik ere **Hordagoa!** emateko garaia iritsi dela ondorioztatu zuten, eta ehunka herritarrek Tuteran euskaraz bizitzearen aldeko oihuekin bete zituzten urriak.



Zonifikazioaren aurkako manifestazioa, Tuteran.

erakutsi nahi izan du hizkuntza-politika egiten jarraitu nahi duela, zertarako eta egun ezarrita dagoen araudiaren irakurketa are murriztagoa egiteko, eta ondorioz, euskaldunon hizkuntza-eskubideen urraketak bertikotzeko.

Urtearen hasieran izan genuen Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren epaia, langile bati euskararen derrigorrezko ezagutza kentzeko, euskara hizkuntza zaila den aitzakia baliatuta. Esan genuen, bai, kaleratutako epaiak izan zuela ondorio po-

ESKU HARTZEEN AURREAN TINKO

Tamalez, 2022an ere Botere Judizialak ol-darraldiari segida eman dio, eta berriz ere



Hizkuntza-eskubideen urraketa ahalbidetzen zuen epaiaren aurkako elkarretaratzeta, Laudion.

sitiborik. Izan ere, balio izan zuen aspaldi dioguna berresteko: edozer tontakeria, irizpide juridikorik gabeko edozer gauza balia daitekeela baldin eta hizkuntza-eskubideen urraketa ahalbidetuko duen epaia argitaratu nahi bada. Badakite inork ez diela kargurik hartuko horrelako astakeriak bota arren. Hori salatzeke Kontseiluak, tokiko euskalgintzarekin batera, elkarretaratzea antolatu zuen Laudioko udaletxearen aurrean.

Tamalez, ez da oldarraldi bakarra izan. Hilabete batzuk Epaitegi beretik heldu zen beste epaia zeinaren arabera udaltzainen lan-poltsan ez den behar euskarazko B2 maila; ondoren, alabari beste izen bat jarzera derrigortu zituen beste epaile batek guraso batzuk; LANBIDEn euskara plana baliogabetu zuen epaile batek.... Azpimarratzeko modukoa ere bada, Auzitegi Gorenak itxi egin zuela Irungo udaltzainen euskara eskakizunari buruzko auzia. Horrela, EAeko Auzitegi Nagusiaren iazko epaiari Irungo Udalak jarritako kasazio helegitea ez zuen onartu Auzitegi Gorenak, idatziak ez duela legeak eskatutako exijentzia nahikorik bete argudiatuta- Nafarroan ere izan dira horrelako eskuhartzeak, esaterako, Nafarroako Auzitegiak Orkoiengo Udaleko

bederatzi lanposturen euskararen ezagutza baliogabetu zituenean.

URTEURRENAK

2022a ospatzeko hamaika arrazoi izan ditugu Euskalgintzan, eta Kontseiluaren familian, tartean hainbat bazkideren eta Kontseiluaren beraren urteurren borobilak izan direlako.

Berrogeita hamar urtez jardun dute ELKAR, ELHUYAR eta UEU bazkideek lanean. Euskarazko kulturaren alde, euskara eta teknologiak uztartuz zein euskal unibertsitatea eraikitzen, hurrenez hurren. Hogeita bost urte joan dira EMUN kooperatiba lanean hasi zenetik, bai eta euskara elkarrekin TOPAGUNEA eratu zutenetik ere.

Eta, nola ez, ezin ahaztu 1997ko abenduaren 6an Durangon, euskalgintzako eragile nagusienek Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua eratzeko sortze biltzarra egin zutela. Data hori baliatu du Kontseiluak urteurrena ospatzeaz gain, ziklo berria gidatuko duen idazkari nagusi berria aurkezteko.



Hiru idazkari nagusiak eta bazkideak oholtzan, Kontseiluaren 25. urteurreneko ekitaldian, Durangon.



6. AURRERA BEGIRA

2022an, beraz, izan da gazirik eta izan da gozirik. Eta, nola ez, utzi digu etorkizunerako irakaspenik, egitekorik eta erronkarik. Bi lan lerro handitan bil daitezke mandatu nagusi horiek: batetik, jada abian diren auzi, arlo, egitasmo eta dinamika zehatzen lanketan segitzea. Esate baterako, EA Eri dagokionean, Hezkuntza Legean edota administrazioan euskararen balorazio eta erabilera arautzeko dekretuan eragitea, ezagutzaren unibertsalizatorako egiazko tresna eta euskaldunentzako eremu egiaz eroso izan daitezen. Nafarroan, berriz, ofizialtasunaren aldarrikapena ardatzean jartzea, administrazioan euskara aintzat har dadin bermatzea edota hezkuntzako PAI ereduaren bidez euskarak eta euskal hitzunik jasaten duten bazterkeria galgatzea. Ipar Euskal Herrian ere hainbat dira 2022ak lagatako etxeko lanak, besteak beste, ikasleek bigarren ziklo amaierako eta batxiler bukaerako azterketak euskaraz egin ezinik jarraitzen dutelako, eta hezkuntzako murgiltze eredia zabaltzeko ez ezik sendotzeko eragozpenak handiak direlako.

Halaber, bada urgentziatzko beste zeregin bat: euskararen kontrako oldarraldi judizialari aurre egitea. Gainera, Euskal Herri osoan ditugu oldarraldi horren agerpenak.

Baina lan zehatz horiek lagatzeaz gain, 2022ak berretsi egin digu aurretik ere kontentzimendu genuena: euskararen etorkizuna ez ezik, euskaraz ardatzen diren herritarren bizigarritasuna eta eskubideak egiaz bermatuko baditugu, ezinbestekoa dela hizkuntza-politikan jauzi bat egitea. Horra, beraz, aurrera begirako beste zeregin sailhesezin eta atzeraezina.

Aspalditik ari da euskalgintza jauzi horren beharra sentitzen, haren nondik norakoak aztertzen, eta hitz zein praktiketara ekartzeko ahalegina egiten. Izan ere, azken hamarkadetako euskalgintza askotarikoaren ekinak bizirik eta noranahiko ekarri du euskara XXI. mendeko hirugarren hamarkada honetara, baina, gero eta argiago ikusten ari gara etorkizunean ere bizi eta noranahiko nahi badugu orain arteko hizkuntza-politikak ez direla aski. Ikusten ari gara ezagutzaren zabaltzeak ez duela erabileran espero zen ispilu efekturik eragin, ikusten

ari gara eguneroko bizimoduko esparru gehienak oraindik deseroso direla euskaraz ardatzen direnentzat, eta, batik bat, ikusten ari gara mundu osoan gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta kultural hiperazeleratuek oso erronka zailak jarri dizkiela gurea bezalako hizkuntza gutxituei, hizkuntza gutxitu horietan saretzen diren komunitateei, eta hizkuntza gutxitu horietan ardatzen diren jendei.

Izan ere, bizitzaren digitalizazio eta merkantilizazioaren ondorioz hizkuntzekin daukagun harremana bera ere aldatu egin da. Oraintsu arte, hizkuntza bakarrean edo bitan ardatzen ginen euskal herritarren gehiengo handia -euskaraz ardatzen direnek ezinbestekoa baitute bizirauteko gaztelera edota frantsesa ere ardatzeko egitea-. Ingelesaz jabetzea, esaterako, diru, denbora eta ahaleginetan izerdi asko eskatu dien prozesua izan da azken 50 urteetan jaiotako euskal herritarrentzat, hain zuzen ere, eguneroko bizimodu eta bizi esperientzietatik oso urrun zegoelako. Bilatu egin behar zen, eta aurkitzeko diru eta denbora asko eskaini. Irisbidearen gogorrak beran utzi ditu gehientsuenak helburua bete gabe.

Oso bestelakoa da oraingo haur, gaztetxo eta gazteen bizipena: arestian aipaturiko bizitzaren digitalizazioaren ondorioz ingelesa egunerokoan erabat gorpuztutako eta zentzuz betetako hizkuntza dute, iritsi erraza, bilatu gabe ere jarioan datorkiena. Gaztelera eta frantsesa bezalaxe. Jario eta hizkuntzekiko harreman berri horren ondorioz, mundu osoan bezalaxe, gurean ere hizkuntza nagusiak gero eta nagusiago dira, hegemonikoago. Eta, horrenbestez, euskaraz aritzeko, euskararen aldeko hautua egiteko, gero eta erabakimen handiagoa behar da.

Haize kontrako erabakiek indar handia eskatzen dute, bulkada bat, motibo bat. Haize kontra hizkuntza bat hautatzeko hizkuntza horrek funtzionala izan behar du, lehenik eta behin. Baina ez da aski. Behar du, baita ere, balio sinboliko oso indartsu bat, are eta funtzionalagoak eta askoz ere jario handiagokoak diren hizkuntzen ondoan hautatua izateko bulkada izango dena.

Balio horiek ez dira berez eta kasualitatez sortzen, baizik eta harreman eta egitura sozialen sare konplexuan egiten dira, botere harremanek baldintzatuta. Hau da, landu, eratu eta sustatu egiten dira. Langintza horretan ari dira, adibidez, Europa iparraldeko estatu txikiak: ingelesari aurre egiteko xedez beren hizkuntzak bizimoduaren paradigma berria osatzen duten euskarri guztietara ekartzen, ikus-entzunezko ekoizpen propioan inbertitzen, beren hizkuntzak esanahi eta balio berriz jantzen. Hots, hizkuntzen arteko botere harreman berrira egokitze-ko hizkuntza-politika sendoak abian jartzen. Eta ez bakarrik Europa iparraldeko estatu txikiak, munduko hizkuntza hegemonikoenetako bitan ardatzen diren gure bi auzo estatuak ere, Frantzia eta Espainia, ahalegin berean ikusten ditugu, hizkuntza-politika irmoen bidez.

Azken urteetako beste aldaketa handi bat da euskal herritarren abiaburuko sorlekuak gero eta ugariagoak direla; azken boladako migrazio joerek erronka (zahar)berria ekarri dute: euskaraz jabetzeko eskubidea eskaintzea eta bermatzea euskal herritar horiei denei, eta hori ere, hizkuntza-politika sendo eta irmoen bidez bakarrik egin daiteke.

Lehenago aipatu bezala, euskalgintza (bere askotarikotasunean) jabetuta dago erronka horietaz guztietaz, eta desafio horiei aurre egiteko hizkuntza-politikan jauzi bat egiteko beharraz. Diskurtso eta praktika berriak ari da sortu eta gauzatzen. Ildo horri lotzen zaio urteko irakurketa honetan atal batean berariaz jorratu dugun Kontseiluaren *Batuz Aldatu* dinamika. Hain zuzen ere, hizkuntza-politikan ezinbestekoa den jauziaren hiru zutoinak ezartzen ditu: ezagutzaren unibertsalizazioa bermatzea, euskararen erabilerarako eremu erosoak sortzea —eta, horrenbestez, beren burua euskaraz ardatzen dutenek herritar eskubideak berdintasunean gauzatzea eta bizitza bizigarriagoak izatea—, eta adostasun soziala.

Euskararen jabekuntzaren unibertsalizazioa eta erabilerarako eremu erosoak sortzea eraldaketa prozesuak dira, aurrera eramateko indarrean diren praktika sozialak eta

botere harremanak berrikusi eta aldatzea eskatzen dutenak; hizkuntza-praktikei lotutako botere birbanaketa bat, finean. Adostasuna elementu garrantzitsua da eraldaketa sozialeko prozesuok helburuak bete ditzaten eta iraunkorrak izan daitezen. Eta, adostasunak, lehen aipaturiko balio eta kapital sozialak bezala, ez dira berez eta kasualitatez sortzen, baizik eta landu eta eratu egiten dira. Elkarri esate, eta, batik bat, elkar entzute lan handia eskatu ohi dute.

Gainera, hizkuntza-politikan proposatzen dugun jauzi honek adostasunaren beraren markoan ere jauzia eskatzen du, euskalgintzako eragileetatik haragoko adostasuna, euskaltzale eta euskaldunen eremua gaindituko duena. Adostasun horren oinarria izan behar du ulertzea eta onartzea euskararen normalizazio eta biziberritzeaz ari garenean ez garela ari abstraktuan hizkuntza baten egoera edo iraupenaz, baizik eta, milaka euskal herritarren oinarrizko eskubideetako batez ari garela —eskubide horrek duen hezurdura komunitarioagatik kolektiboa ere badena—. Ulertzea eta onartzea, halaber, eskubide hori prozesu historiko luze batean behin eta berriro higitu dela, egun euskaraz ardatzen direnak eta euskara bera subalternitate egoeran egotera iritsi arte. Azken batean, ulertzea eta onartzea euskararen auzia bizikidetzarekin, kohesio eta justizia sozialarekin, eta azken buruan, demokraziarekin lotzen dela. Beste era batera esanda, bizikidetzan, kohesio eta justizia sozialean eta demokrazian sakontzea nahi duten eragile eta norbanakoen ardurako auzia dela.

Hain zuzen ere, hortxe dago aurrera begirako eginkizun handienetako bat: *Batuz Aldatu* dinamikarekin ekindako bidean sakonduz euskalgintzatik kanpoko gero eta eragile gehiagotara jotzea, azaltzea euskararen normalizazio eta biziberritze prozesua zer den eta zertan den, nola lotzen den kohesio eta justizia sozialarekin, haiei entzutea, eta adostasun puntuak bilatu, sortu eta lantzea. Orain arteko esperientziak erakutsi digu uste duguna baino handiagoa dela.

Laburbilduz, adostasuna euskalgintzako eragile eta norbanakoekin; adostasuna instituzioekin; eta adostasuna beren burua

euskalgintzatik eta euskaratik aparte xamar ikusten duten arren justizia eta kohesio soziala helburu dituzten eragile eta norbanakoekin.

Nabarmentzekoa da, arlo honetan irabazitakoa ez da izango bakarrik euskaldun eta euskaltzaleentzat. Izan ere, batetik, prozesuak berak bizikidetzan eta berdintasunean sakontzea ekarriko du. Bestetik, monolinguisimo homogeneousatzailearen arriskuei aurre egiteko bide bat. Lehen azaldu dugu nola munduaren azkenaldiko martxak ekarri duen hizkuntza nagusiak gero eta nagusiago izatea, hegemonikoak are eta hegemonikoago. Nola hizkuntza eta hizkuntza komunitate indartsuenak ere ahul sentitzen diren ingelesaren gain hartze globalagatik. Eta ingelesaren nagusitze horrek berarekin dakar gero eta mundu homogeneousoago baten eratzeari; edo, akaso, alderantziz: mundua gero eta homogeneousoago izan dadin ezinbestekoa da hizkuntza bakar baten nagusitasuna, monolinguisimo totala.

Lurra indar bereziz erausten ari zaigu azken boladan zeintzuk diren monokultiboaren arriskuak; zer kalte ari zaigun ekartzen biodibertsitatearen galera gero eta handiagoa. Monolinguisimoak biodibertsitate kulturalari egiten dion eraso, eskala individual zein kolektiboan: norbanako gisa zein komunitarioki bizimodu berriak praktikatzeko —eta, are, imajinatze eta, beraz, desiratzeko— aukerari. Ondorioz, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde egitea biodibertsitate kulturalaren alde egitea da, mundu bizigarriago baten alde egitea.

Azkenik, jauzi honek izan behar du beste ezaugarri bat: euskararen aldarriak politikarekin lotzeari beldurra galtzea. Euskaltzaleok, arestian aipatutako higitze prozesu historiko luzearen ondorioz, geuron buruak babeste aldera, kezkatik eta ikaratik, askotan aipatu eta bultzatu dugun ideia da euskarak politikatik at behar duela. Ideia hori itzulikatze garaia heldu da. Izan ere, azken boladak eraldaketa sozialeko prozesu interesgarrienetakoen pizgarri izan den teoria feministak erakutsia da guztia dela politikoa. Edo Anjel Lertxundi idazle eta pentsalariak honela laburbildu du hizkuntza-praktiken eta

politikaren arteko harremana: “Hasi kaleko jardun apalenetatik eta jo administrazioko botere-botoi distiratsuenara, hizkuntzari edo hizkuntzei buruz hartzen diren erabakiak ekintza politikoak dira beti”. Beraz, euskarak zerbait behar badu hori politika da, letra larriz idatzitako politika, hauteskunde zikloez harago interes orokorra lehenetsiko duena; begirada zabaleko eta goi arnasadun politika. Adostasun zabal eta sendo baten bermea.

Hori izango da Kontseiluaren ahalegina eta iparrorratza euskararen ontzia XXII. mendeko itsasoan noranzkoan jartzeko.

Idurre Eskisabel Larrañaga
Idazkari nagusia



Idurre Eskisabel Larrañaga, Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia.



@kontseilua



@EuskalgintzarenKontseilua



@kontseilua



www.kontseilua.eus